# Elikadura eta nekazaritza mapak

## 1. Aurkezpena

2008 urtean, historian lehenengo aldiz, hirietako biztanle kopuruak landa eremuetakoa gainditu zuen. Datu hau, batez ere mendebaldeko gizarteek jasan duten hiritartze prozesuaren isla da. Testuinguru honetan, landa eremuari bizkarra emanez bizi garela esan daiteke. Honen ondorioetako bat, elikagaiak sortu, eraldatu eta garraiatzearen inguruan dugun ezjakintasun sakona da.

Ekimen honen helburu orokorra, gaur egungo elikadura sistemak ingurune hurbilean eta baita maila globalean dituen ondorioak aztertzea da. Horretarako, ikerketa bat egitea proposatzen dizuegu. Gaur egungo egoeratik abiatu eta iraganera bidaiatuko dugu salmenta eta ekoizpen puntuak aztertu eta azken hamarkadetan egon diren aldaketak aztertzeko.

## 2. Arduraz aukeratu

Fijatu al zarete noizbait zuen etxeetan dauden elikagaietan?

Etxean erosketa saskia aztertu:
Non egiten dituzue erosketak?
Ba al dago tartean produktu ekologikorik?
Produktu bat ekologikoa den jakiteko horrelako zigilua bilatu behar duzue.
Nondik datoz etxean dituzuen elikagaiak?

ENEEK
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
AGRICULTURA ECOLÓGICA
ES-ECO-026-VAS



Gelara itzultzean markatu denon artean elikagaien jatorriak mapa batean eta komentatu ikusten duzuena:

Ba al du eraginik ingurumenean produktu baten jatorriak?
Eta ekologikoa izan ala ez izateak?
Ba al dago desberdintasunik ekoizleen eskubideei dagokionez?
Berdina al da herrian duen eragina produktu mota bat edo bestea kontsumitzea?

## 4. Beti izan al da horrela?

Azken hamarkadetan aldaketarik egon den aztertzeko, iraganeko mapa ere egingo dugu.
Komenigarria da mapa historikoan gaur egungo mapan egin dugun sailkapenaren ahalik eta antzekoenak islatzea eta ikur berdinak erabiltzea.

Bila dezagun informazioa!

- 50. hamarkadan 15 urte zituen pertsona batek zenbat urte ditu gaur egun?
Ezagutzen al duzue herrian adin horren inguruko norbait?
Bilatu zuen inguruan (aiton amonak, bizilagunak, zahar etxean...) eta egin elkarrizketa:
Zein denda zeuden herrian ?
Ba al zegoen orain ez dagoen baserririk?
Azoka egiten al zen?
Nondik ekartzen ziren elikagaiak?

- Udaletxeetan edo artxiboan egoten dira denden zerrendak, argazki zaharrak... animatzen al zarete bilatzera?

- Herriko lur sailak non zeuden (baratzak, soroak, zelaiak)?




## 5. Ondorioak ateratzen

Alderatu bi mapak eta bilatu desberdintasunak:

- Handitu edo gutxitu al da herrian elikagaiak ekoizteko gune kopurua?
- Lehenengo lur saileetan, orain zer dago?
- Zer egin dezakegu guk bertako ekoizleei eta ingurumenaren egoera hobetzeko?
- Zer egin dezake gure herriko udalak?

cristinaenea fundazioa
LANDAOLA
GIPUZKOAKO LANDA GARAPEN ELKARTEEN FEDERAZIOA
ingurugela

Idatzi zure hitzekin mota hauetako produktuak kontsumitzeak dituzten onurak

Bertako produktuak: ..............................................................................................................

Produktu ekologikoak: ..............................................................................................................

Bidezko merkataritzako produktuak: ..............................................................................................................

## 3. Gaur egungo egoeraren azterketa

Eta gure herrian, ba al dugu produktu hauek kontsumitzeko aukerarik? Goazen aztertzera!

**1. Herriko denda txikiak**
Banatu kaleak ikasleen artean eta bisitatu kale bakoitzean dauden elikagai dendak saltzen dituzten produktuak aztertuz:

| **Izena** | **Denda mota** (elikagaiak orokorrean, harategia, arrandegia, okindegia...) | **Helbidea** | **Bertako produktuak** (bai/ez) | **Produktu ekologikoak** (bai/ez) | **Bidezko merkataritzako produktuak** (bai/ez) |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |

**2. Beste salmenta motak**
Galdetu zuen ingurukoei ia herrian badagoen horrelakorik eta non dauden:

| **Salmenta mota** | **Izena** | **Helbidea** |
|---|---|---|
| Merkataritza gune handiak | | |
| Merkatuak | | |
| Kontsumo taldeak | | |
| Baserrian bertan salmenta zuzena | | |

**3. Nekazaritzako ekoizpen eremuak**
Banatu herriko auzoak edo eremuak ikasleen artean eta jarri non dauden: nekazaritza lur sailak, autokontsumorako baratzak, nekazaritzan lan egiten duten baserriek, elikagaien lantegi haundiak, elikagaien lantegi artisauak,...

**Gaur egungo mapa**

Egindako ikerketa antolatu eta erakusteko, herriko “mapa mutuak” erabiliko ditugu.
Bertan, ikerketa prozesuan zehar agertzen joan diren gai eta berezitasun guztiak jasotzen joan gaitezke.
Markatu zuen mapan kolore eta/edo ikur desberdinekin. Hasi baino lehen denon artean erabaki jarraituko dituzuen irizpideak.

Elikagai salmenta guneak
Denda mota desberdinak islatzerakoan, kolore eta/edo forma desberdinak erabiliz bereiztea gomendatzen dizuegu. Hona hemen ideia batzuk:

Elikagaiak orokorrean (X); Harategia (#); okindegia (+)

Kontsumo arduratsuaren irizpideak betetzen dituzten elikagaien salmenta puntuak
Mapan agertuko den informazioa osatzeko, tokian tokiko produktuak saltzen dituzten dendak eta baita produktu ekologikoak saltzen dituztenak biribilduko ditugu, bakoitzarentzat kolore bat erabiliz.

Ekologikoa: ◯ Bertakoa: ◯ Bidezko merkataritza: ◯




(+) Okindegi bat produktu ekologikoekin

(#) Harategi bat bertako produktuekin

(x) Elikagaiak orokorreko denda bat bidezko merkataritzako produktuekin